

# **GURE ENPRESAREN BALOREZKO PROPOSAMENA**

## **ADMINISTRARITZA- ETA KUDEAKETA- OINARRIAK**

**ANJE DELGADO  
DANEL GARCIA  
YURENE FERNANDEZ  
ESTIBALITZ NAVARRO  
GARAZI PEREZ**

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Ingurunea kutsatuko ez duen kotoi-zotzak asmatu nahi ditugu. Gure produktua besteengandik desberdintzen da, material biodegradagarriaz egina dagoelako, hain zuzen ere, arrautza-oskolaz eta hosto lehorrez. Berrikuntza honi esker, kutsadura murriztuko litzateke eta denok mundu garbi batean biziko ginateke. Aldi berean, gure produktuari esker egun gobernuak ingurunea garbitzeko eta zaintzeko erabiltzen duten dirua beste gauzentzat erabil ahaluko luke, esate baterako, pobreziaarekin amaitzeko edo gutxienez murrizteko, erretiro-pentsio duinak ordaintzeko, etab.

Gure produktua erosiko balute bezeroek, ez dute pentsatu behar mundua kutsatzen hari direnik. Guk salduko ditugun kotoi-zotzak material biodegradagarriez eginak daude eta urarekin kontaktuan jartzean desegin egiten dira eta esan beharra dago honek ura kontaminatzen duela, baina ez zaborrak bezainbeste. Horregatik mundua kutsatzea ez lirateke gure kezka izango, produktu honekin ez genukeelako ingurunea kaltetuko. Ondorioz, itsasoko fauna eta haien habitata salbatuko genuke, ingurune garbi batean biziko dira eta. Eta horretarako honako balioak izango litzuzke:

**Nobedadea**, duela urte batzuk ez zen existitzen mundua ez kutsatzeko beharrik, izan ere, asmatzen eta saltzen ziren produktu gehienek ez zuten kutsatzen. Orduan, gure produktuak orain sortu berri den behar hau asetuko luke. Behar hau sortu da ez dagoelako beste aukerarik, edo planeta eta ingurunea zaintzen dira edo bestela pikutara doaz. Gaur egun, hain zuzen ere, material ez biodegradagarriak murrizteko izugarritzko beharra dago, mundua oso kutsatuta dago eta.

Balio kuantitatiboari dagokionez, **prezio** onargarrian salduko genituzke, izan ere, kotoi-zotz biodegradagarriengatik ez litzateke birziklapen tasarik ordaindu beharko. Horrek egingo luke, normalean produktu ekologikoak, organikoak, etab. direnak baino gutxiago kostatzea, gainerako zaborrekin batera botatzerakoan, biodegradagarria denez lehenago deskonposatuko baitzen.

Gure produktuak bi balio horiek bakarrik ditu, izan ere, ez dugu produktu berri bat asmatu nahi. Gure helburua ez da produktuaren erabilera hobetzea. Beste alde batetik, gure produktua ez da bakoitzaren beharretara egokitzen, denen behar batera egokitzen da eta saltzerakoan ez dugu bezeroarekiko arreta pertsonalik eskaintzen. Gurea ez da beste produktuak erabiltzeko baino errazagoa. Berdin erabiltzen da, denbora bera baliatzen da eta gauza bera egiteko balio du. Guk asmatu nahi ditugun kotoi-zotz biodegradagarriek ingurunearekiko onura eskaintzen dute eta horrekin batera prezio onargarri bat dute. Bestalde, ez dute aparteko diseinurik, produktua ekoizterakoan ez garelako diseinuan zentratzen, eginda dagoen materialetan baizik. Gure markak ez dio produktuari aparteko osperik emango. Gure produktua merkea izango denez, bezeroek ez dute hura erosterakoan inongo arazorik izango. Azkenik, denen eskura egongo dira, edozeinek erosi ahal izango ditu eta ez dute aparteko erabilerraztasun gehiagorik izango, izatez erabiltzeko errazak direlako.

Beraz, gure produktuaren balioak **nobedadea** eta **prezioa** soilik izango lirateke. Produktua erostean bezeroek ez du dirua galtzeko arriskurik izango, produktu merkea izango delako eta produktua edozeinek erosi ahal izango duelako. Esaterako, denen eskura dagoen produktuetako bat izango da.